


Gobernu politika feministak

A Z T E R G A I



itaia



1 Sarrera 4.or

2 Gobernu politika
feministak 6.or

Trans legea 6.or

Soilik baietz da baietz 8.or

Osasun sexualerako legea 9.or

Etxeko langileen legea (OIT 189) 10.or

3 Eztabaidagai izan
diren proposamenak 11.or

Trata eta prostituzioa 11.or

Zaintza publiko eta komunitarioa 12.or

4 Ondorio politikoak 14.or

5 Bibliografia 16.or

Sarrera

Azken urteetan, asko hitz egin da politika feministei buruz albisteetan. 2020an, PSOE-Podemos gobernua eratu zenean, Espainiako Estatuak ohiko bipartidismoari ikuspegi aurrerakoia gehitu zitzaion. Komunismoaren mamua bueltan dela zabaltzeko erabili du geroztik eskuinak gobernuaren ustezko izaera aurrerakoi hori.

2008an hasi zen atzeraldi ekonomikoak gogor eragin zuen Espainiako Estatuan, eta agerian geratu ziren estatuak ezintasun ekonomikoari aurre egiteko zituen mugak. Tes-tuinguru horretan, hainbat eta hainbat mugimendu berri sortu ziren. Ugaritu ziren aldarrikapen horiek guztiak instituzioetan ordezkatzeko sortu zen Podemos 2014an. Aldarrikapen horien artean, feminismoak garrantzi handia hartu zuen, garaiko zenbait fenomenoren ondorioz. Maila internazionalen, besteak beste, #NiUnaMenos mugimendua sortu zen Argentinan, #MeToo Estatu Batuetan, eta Trumpen aurkako protestek olatu izugarria eragin zuten. Aipatzekoa da, era berean, Iranen poliziak eraildako Mahsa Amini-ren alde kalean piztutako erantzuna 2022an. Estatu mailan, Gallardonoren abortuaren legeak piztu zuen erreakzioa garrantzi handikoa izan zen; feminismoak gogor erantzun zuen, eta eskuinaren oposiziorako marko gisara egituratu zuen bere burua. Aipatzekoak dira, halaber, 2016an “La Manada” kasuak eragin zuen sekulako haserrea eta 2017-2018an egin ziren greba feministak.

Era berean, ideia feministen zabalpenak eragin zuzena izan du instituzioetan; feminismoaren parte handi batek eraldaketa feministarako tresnatzat ditu instituzio kapitalistak, eta estatuak aldarrikapen sozialak bere egiteko joera argia du. Horri jarraikiz, inork ezin du zalantzan jarri azken urteetan gobernuan egon den elementu zentralerako bat-entzutesuena eta polemikoena behintzat- Berdintasun Ministerioa izan dela. Presentzia izugarria izan du eta Kongresura eramandako proposamen orok eztabaida sutsua piztu du, instituzioetan zein kalean. Proposatu dituen politika feministen bidez, esan bezala, Berdintasun Ministerioak bere egin ditu mugimendu feministak urte luzeetan mahaigaineratu dituen aldarrietako batzuk, eta haiei forma legala ematen saiatu da. Feminismoaren instituzionalizazioaren eta Estatuak mugimendu feministaren aldarriak bere egitearen ondorioz, ordura arte indartsu zegoen kaleko mugimendu soziala (feminismoa, batik bat) lausotu du.

Alabaina, agerian gelditu da instituzioek proposatu dituzten politika feministek bide motza dutela. Batetik, ustez gizartearen gehiengoak ideia matxistak baztertzen badi-tu ere, errealitatean praktika matxistak erreproduzitzen jarraitzen duelako. Bestetik, politika publiko feministak indartzeak ez duelako lortu emakume langileon errealitatea aldatzea; are, aurrerapausoak eman izana ere oso zalantzarikoa da. Gainera, azkenaldian, nabarmenki egin dute gora ideia faxistek, eta jarrera matxistak indartu dira. Era

berean, enpresa askok etekin ekonomikoa handitzeko erabili dute feminismoa; izan ere, berdintasun kuotak betetzeagatik dirulaguntzak jaso dituzte, eta emakumeak kontratatzea merkeago zaie. Izan ere, jardunaldi laburrek eta aldi baterako lanek soldatetan diru gutxiagoa gastatzea dakar. Gainera, emakumeon sektoreak historikoki gure lan esparruko eskubideen defentsa egiteko zailtasunak izan ditugu lan baldintza prekarioengatik eta, beraz, kasu gehienetan enpresariak ez dute beraien burua baldintzak hobetzerantz behartuta ikusi.

Gauzak horrela, garrantzitsua ikusten dugu gobernu politika feministen gaineko analisi kritikoa egitea eta errealki dakartzaten aldaketen norabidea aztertzea. Horretarako, azken urteetan eztabaidatu edota martxan jarri diren lege nagusiak aztertu ditugu testu honetan. Bi galdera izan ditugu abiapuntu: zer aldatu dute errealki lege horiek? Noren onurarako dira?

Gobernu politika feministak

Aipatu bezala, Irene Monterok Berdintasun Ministerioa bereganatu duenetik proposamen asko jarri dira mahai gainean eta hautsak harrotu ditu. Kongresuan politika feministei buruzko eztabaida etengabe egon da. Eskuinak bere onurarako aprobetxatu du egoera, bere izatea elikatu du polemika horietan oinarrituta eta, ondorioz, jarrera eta ideia atzerakoi eta matxistak indartu ditu. Ezker hegalak bere jardunaren pantaila gisa erabili ditu politika hauek eta izan duten zabalpen mediatikoa. Bien bitartean, ordea, proletalgoaren kontrako lege autoritarioak onartu dituzte behin eta berriz; besteak beste, Zigor Kodearen erreforma, okupazioa kriminalizatzeko politikak, eta indar polizialak indartzea eta normalizatzea onartu dituzte. Gainera, oposizioan zeudenean hainbestetan arbuiatu zuten “Mozal Legea” bere horretan mantendu dute. Hainbatek “aldaketa-aren gobernua” izendatu badu ere, egoera zaurgarrienean bizi direnen bizitzak errealki aldatzeko dituen mugak agerian gelditu dira.

Urteotan zentralitatea hartu duten legeen artean aipatzekoak dira ‘soilik baietz da baietz’ legea eta trans legea, esaterako. Horiei buruz horrenbeste hitz egin bada ere, oraindik askotan kosta egiten zaigu politika horiek dakartzaten aldaketak ezagutzea eta dituzten inplikazioak ulertzea.

TRANS LEGEA

Eztabaida handienetakoa sortu du. Batzuek legeak berak emakumeon eskubideetan ekar lezakeen atzerakada azpimarratu dute, eta beste batzuek adin txikikoen medikalizazioan eta interbentzio kirurjikoaren arriskuan jarri dute fokua.

Mamian sartu aurretik, legeak dakartzan berrikuntzak bi puntutan laburtuko ditugu. Batetik, aurretik identitatea aldatzeko bi urteko hormonazioa eta genero-disforia diagnostikoa behar ziren; orain, aldiz, baldintza horiek bertan behera utzi ditu legeak, eta hala, trans izatea despatologizatu da. Bestetik, erregistro zibilean izena eta sexu aldaketa eta, beraz, genero autodeterminaziorako prozesua erraztu du, ez baitira aurreko baldintzak exijitzen.

Legeak sortu dituen aukeren ondorioz, zenbait pertsonen generoaren auziarekin zeri-kusirik ez duten bestelako interes pertsonalak lortzeko erabili dute legea (sexua aldatuta oposaketetan diskriminazio positiboaren kuotetan sartu eta erraztasunak lortzeko,

esaterako); hau da, lege iruzurraren bitartez erregistroan sexu aldaketa egin nahi izan dute beren interes pertsonalak lortzeko. Erregistro zibileko aldaketa bertako epailearen eskumena da eta, beraz, erabaki horiek arbitarioak dira, aldaketa horiek ez baitaude irizpidetuta, epaile bakoitzaren arabekoak dira. Gainera, Espainiako Estatuko edozein erregistrotan gauzatu daiteke aldaketa, oraindik eta nahasiago bihurtuz egoera. Hala ere, aipatzekoa da beste herrialde askotan mota honetako legeak egon badaudela eta ez da lege iruzur masiborik egon, zeinak legea aldatzea eragin duen.

LGTB kolektiboaren baitan, orokorrean begi onez hartu da aldaketa. Legeak kolektiboarentzat eragin dituen aldaketa errealengatik baino, maila sinbolikoan kolektiboak Estatuan lortzen duen errepresentazioagatik. LGTB pertsonak eta, zehazki, trans pertsonak indarkeria izugarria pairatzen jarraitzen dute: lana lortzeko arazoak antzekoak dira, kanon estetikoak betetzeko presioa dago oraindik, besteak beste. 2022ko datuen arabera, trans kolektiboaren langabezia tasa % 40koa da eta 35 urtetik gorako emakume transen kasuan % 80ra iristen da¹; trans pertsonak bizi duten indarkeriari dagokionez, % 66,7k jazarpena bizi izana baieztatzen du, % 21,4k indarkeria fisikoa eta % 11,9k indarkeria sexuala².

Aldaketa juridikoek gutxi egin dezakete kolektibo honek pairatzen duen zapalkuntzarekin amaitzeko. Aldaketa juridiko horri, gainera, berarekin loturan datorren gaiaren zabalpen soziala gehitu behar diogu. Hedabideetan zein sare sozialetan influentzia handia duten eta iritzia publikoan indarra duten pertsona zein kolektiboek trans pertsonen egoeraren soluziotzat jo izan dituzte sexu aldaketarako interbentzioak eta hormonazioak. Horrela, 2019ko datuen arabera, trans pertsonen % 47,6k ebakuntzak egiteko, hormonatzeko, masektomia edo mamoplastia egiteko presioa sentitu zuen³. Aldiz, norbanako batzuentzat maila pertsonalean aldaketa horiek egiteak onurak ekar ditzakeen arren, ez du generoaren inposizioak dakarren dominazioarekin amaitzen. Beraz, errealitatean existitzen den genero inposizioa ezin da termino juridikoetan gainditu, ezta maila pertsonaleko aldaketa soilekin ere, ez bata ez besteak ez baitu inondik inora gizarteak inposaturiko funtzio sozialekin, hau da, pertsonengan jartzen diren inposizio sozial eta kulturekin (zapaldu egoera finean: lan baldintza txarrak, indarkeria jasatea, presio estetikoak, jarrerak...) amaitzen.

Labur esanda, maila sinbolikoan kolektibo horretan eragin positiboa izan badezake ere, LGTB taldeak zapaldua izaten jarraituko du. Marko juridiko batek ezin dio aterabidea eman sexuaren gaineko generoaren inposizioari, kontuan hartuta sistema kapitalistak beharrezkoak dituela dominazio forma anitzak. Kasu horretan, sexuei inposaturiko funtzio sozialek subjektu debalatuak sortzea edota indartzea ahalbidetzen diote eta horretatik etekin ekonomikoak handitzen ditu, langile klasearen barruko etengabeko gatazkak indartzearekin batera. Eztabaidak, aldiz, Gobernuko alderdiek posizio aurrerakoen domina jartzeko balio izan du; gainera, legea prozesu parte hartzaile baten ondorio gisara saldu dute. Horrekin batera, industria estetiko eta farmazeutikoak etekinak ateratzeko ere baliatu du, ebakuntza eta interbentzio estetiko horiekin guztiekin. Hala adierazten du, esaterako, Global Market Insight erakundeak plazaraturiko txostenak: 2022. urtean sexua berresleitzeko kirurgiek 623 milioi dolar lortu zituzten eta 2032rako 1.900 milioi dolar lortzea aurreikusten da. Europan 12.000 eta 20.000 dolarren artekoa da mota horretako kirurgia baten kostua.⁴

1 https://cincodias.elpais.com/cincodias/2022/03/30/fortunas/1648655666_055768.html

2 https://felgtbi.org/wp-content/uploads/2020/03/PersonaTransSistemaSanitario_informe2019.pdf

3 https://felgtbi.org/wp-content/uploads/2020/03/PersonaTransSistemaSanitario_informe2019.pdf

4 <https://www.gminsights.com/industry-analysis/sex-reassignment-surgery-market>

SOILIK BAIETZ DA BAIETZ

Europa mailan erreferentea izango den lege gisa saldu digute eztabaidarako proposatu zutenetik “Soilik baietz da baietz” legea. Ondoren izan dituen aldaketa eta gorabeherak edonor nahastu dute eta, azkenean, termino juridikoetan ez bada, ez da aldaketa nabariegirik egin. Berdintasun Ministerioaren hasierako proposamenak sexu biolentzia izateko biolentzia eta larderia existitu behar ez izatea proposatu zuen, abusua eta erasoaren arteko bereizketa ezabatuz eta zigorren muga zabalduz. Era berean, gizartea onespenean heztearen beharra jarri dute zentroan. Aldiz, azken momentuan, proposamenak hainbat zigorretan eragindako jaitsierek ekarritako asaldurak PSOE aldaketak egitera eramanean zuten. Hortaz, zigorrak ezberdinak izango dira eraso sexualen eta bortxaketen kasuan, eta handiagoak izango dira biolentzia edo larderia existitu den kasuetan.

Kale mailan eztabaida ere kartzela zigorren jaitsieretan zentratua egon zen. PSOEk, esan bezala, bere erradikaltasuna erakusteko erabili du momentua, erasotzaileen zigorrak gogortuz. Podemosek, aldiz, legearen aplikazio txarrari esleitu dio ardura, “justiziarren izaera patriarkala” argudiatuz.

Punitibismoaren eta prebentzio edota pedagogiaren proposamenen gatazka, aldiz, nahiko antzua da: Argi dago zigorrak luzatzeak ez duela zertan segurtasun handiagoa ekarri, baina, era berean, prebentziozko neurrien eta gizarteratze proiektuen eraginkortasuna oso zalantzarria da, biolentzia betikitzen duen egitura soziala desagertzearekin bakarrik uler baitaiteke hori guztia. Biak ala biak indarkeria matxistaren kudeaketa hutsera mugaturiko proposamenak dira eta, gainera, proposaturiko kontzeptuek oso subjektiboak izaten jarraitzen dute, zehaztasunik gabeak, eta horrek egoera nahasten du. Hala erakusten du esaterako, Suediako kasuak, “onespenaren” erreferente den herrialdeak, onespenean zentratutako politikaren ondorioa bortxaketen zigorrak bikoiztea izan dela eta ez inongo kasutan bortxaketak desagertzea.⁵

Aipatutakoaz gain, ikusteko dago, legeak izango duen aplikazio praktikoa, indarkeria matxistaren kasuan oso desberdina izaten baita Kongresuan entzuten duguna eta errealitatea: erasotzak diren emakumeek traba burokratiko asko izaten dituzte prozesuan zehar, instituzio publikoek eskainitako zerbitzuen kantitatea eta kalitatea oso zalantzarriak dira eta, kasu askotan, erasotzaileen inpunitatea areagotu egiten da. Gainera, legeak ez die beste zenbait arazori erantzuten; horren adibide da, esaterako, eraso bat salatzerakoan polizia etxeetan jasan behar dugun gutxiespena, non bertan dagoen poliziaren borondatearen arabera izaten den salaketa tramitatzea edo ez, salaketak duen baliogabetasunean insistitzea, etab. Aipagarria da, era berean, jarrera arrazista, matxista eta klasistek instituzio burgesetan izaten duten lekua. Beste kasu batzuetan, teknologiaren eta inteligentzia artifizialaren garapenari lotuta, makina baten esku dago gure segurtasuna, hau da, makina batek zehazten du kasuaren larritasuna eta, ondorioz, jasoko dugun babesa, horrek babeserako sistema oro deshumanizatzen du.

⁵ https://www.swissinfo.ch/spa/suecia-violaci%C3%B3n_las-condenas-por-violaci%C3%B3n-se-duplican-en-suecia-en-cinco-a%C3%B1os--tras-la-reforma-penal/48566764

OSASUN SEXUALERAKO LEGEA

Osasun sexualerako legeak hiru aldaketa nagusi ekarri ditu: batetik, abortuaren aurreko kontzientzia eragozleen erregistroa sortzea. Bestetik, hilerokoagatiko bajaran aukera. Eta, azkenik, alokairu sabelen inguruko aldaketak.

Kontzientzia eragozleen auziarekin, zehazten da horiek ezingo dutela inolaz ere abortatu nahi duen emakumearen eskubidea urratu. Hori dela eta, osasun zerbitzu publikoetan kontzientzia eragozleren bat egonez gero, horien erregistro publiko bat existituko da eta, gainera, zentroan beste mediku bat egongo da praktika hori aurrera eramateko prest egongo dena. Horretaz gain, legeak azaltzen du emakumeok zentro publikoetan abortatzeko aukera izatea ziurtatu behar dela. Errealitatea, aldiz, oso bestelakoa da: Hego Euskal Herrian, Osakidetzan bizi dugun desagitea eta privatizazioak medio, abortuen % 95 jada hitzartuak dituen zentro pribatuetan egiten dira, Nafarroan, % 60 dira Antsoaingo klinika pribatuan egiten direnak eta estatu mailan % 82,7 egiten dira pribatuan.⁶ Legeak aipatzen dituen puntuak, beraz, ezerezean geratzen dira.

Horretaz gain, abortatzeko eskubidea bermatzeko eta, zehazki, emakumeon konfidantzialtasuna mantentzeko helburuekin, abortu kliniketara doazen emakumeen aurkako jazarpena ekiditeko helburua zuen legeak. Aldiz, talde antiabortistak modu antolatuan bildu dira ordudunik kliniken aurrean, hamarnaka hiritan, inpunitate osoarekin eta praktika bera normalizatuz.

Legearen beste berrikuntza bat hileroko mingarriengatiko bajak dira eta horiek “ezintasun tenporalaren egoera berezi” gisa izendatzen ditu. Hala ere, errealki ez da aldaketarik gertatu, baja guztien modura “lan egiteko ezintasuna izatea” eskatzen baita eta, beraz, kasu horretan, lehenago ere medikuaren baimenarekin hileroko mingarriengatik baja eskatzeko aukera egon zitekeen. Hala ere, baja hau “egoera berezia” izanda, badi-tu zenbait bereizgarri: baja hau hileroko eskatu beharko litzateke, baina hileroko baja berri moduan erregistratuko da, ez da aurreko hilabetekoaren batura bat izango eta, beraz, ez du inoiz 365 eguneko bajaren langa gaindituko. Gainera, baja hau eskatzeko ez da beharrezkoa kotizazio minimo bat izatea; beste bajetan, aldiz, azken 5 urteetan 180 eguneko kotizazioa izatea eskatzen da. Azkenik, baja mota honetan, baja egun guztiak kobratzen dira eta guztia Gizarte Segurantzak ordaintzen du. Beste bajetan, 3. egunetik aurrera kobratzen da; enpresak 4. egunetik 15. egunera ordaintzen du, eta 16. egunetik aurrera Gizarte Segurantzak.

Baja horrek lan baldintza orekatu eta onak dituzten emakumeei soilik eragingo diela nahiko argia da. Ezaugarri prekarioenetan dauden emakumeek baja eskatzeko ezintasuna izango dute: kaleratzeko arriskuagatik, altan emanda ez daudelako... Gainera, Gizarte Segurantzak bere osotasunean ordaintzen duen baja izanda, enpresari entzat onuragarria da, diru kantitate bat aurrezten duelako eta horrek iruzurrerako aukerak zabaltzen dituelako; esaterako, bestelako edozein baja hilerokoaren minagatik baja gisa hartze-ko eskaerak eginez langileei (covidaren garaian ERTE-ekin gertatu zen bezala).

⁶ https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/interrupcion_embarazo/es_def/adjuntos/informe-ive-2021.pdf
<https://cadenaser.com/navarra/2022/05/17/navarra-garantiza-el-aborto-gratuito-para-las-mujeres-pero-deriva-6-de-cada-10-casos-a-la-clinica-privada-radio-pamplona/>
<https://www.sanidad.gob.es/areas/promocionPrevencion/embarazo/datosEstadisticos.htm#Tabla4>

Azken aipamena alokairu sabelena litzateke. Legean “erabat deuseza den kontratu” gisa agertzen dira alokairu sabelak eta, beraz, kanpaina instituzionalen bidez praktika horien legekanpokotasuna azpimarratzeko informazioa zabalduko dela aipatzen da. Aldiz, errealitatean hori ez da horrela gertatzen; kontrara, beste herrialde batzuetan praktika horien bitartez izandako umeak erregistratzen dira Espainiako Estatuan inolako erantzun penalik gabe. Konkretuki, azken urtean 249 eskabide eta 165 inskripzio egin dira.⁷ Horren pareko, praktika horiek sustatzen dituen publizitatea legez kanpoko dela azpimarratzen da, baina agerikoa da horrek duen balio eza, ohikoa da-eta web orrietan, sare sozialetan, albisteetan, zein telebista programetan alokairu sabelen inguruko informazioa jasotzea.

ETXEKO LANGILEEN LEGEA (OIT 189)

Lan arloari dagokionez, aipatzekoa da etxeko langileen egoeraren erreforma legala edo ta NLE/OITren 189 konbenioaren berrespena. Urteak daramatzate etxeko langileek zenbait aldarrikapenen alde borrokan; horien artean, garrantzitsuenetako bat langabezi-rako eskubidearena da.

Berrespena jasotzen duen errege dekretu horrek proposaturiko aldaketak langabezirako eskubidea eta kaleratzeen gaia dira. Bigarren horretan langilea kaleratzeko hiru kasu zehaztu dira: lehenengoa, familiaren diru-sarreraren beherakada edo gastuen igoera; bigarrena, familiaren beharren aldaketa sustantziala eta, hirugarrena, langilearenganako konfiantza falta. Legearen aurretik, enplegatzaileek inongo arrazoirik gabe kalera zitzakeen langileak.

Aldiz, neurri horiek badute atzetik letra xehez idatzitako zati bat. Batetik, langabezirako eskubidea izateko 360 egunez kotizatu behar da –nahiz eta azken sententzia batzuek lortu duten langabezirako eskubidea izateko baldintza hori ez betetzea– eta hori muga argia da sektoreko langile askok dituzten baldintzetan: kontratu gabe lanean diharduten langileek ez dute eskubide hori, eta sektorearen herena dira. Gainera, egungo lan eze-gonkortasunak ere kotizazioaren baldintza betetzea zailtzen du. Bestetik, aipatzekoa da langabezirako kotizazioak ordaintzerako orduan Estatuak hobariak ematen dizkiela enplegatzaileei (% 20koa kontingentzia komunetan, % 80koa langabezia eta % 80koa FOGASAn) eta, aldiz, langileek haiei dagokien zatiaren % 100 ordaindu behar dute.

Kaleratzeei dagokienez eta bizi dugun krisi testuingurua eta horrek dakarren ezegonkortasun ekonomikoa eta inflazioa kontuan hartuta, aurretik aipaturiko kaleratzeen arrazoiek ez dituzte langileak babesten; aitzitik, haiek kaleratzeko justifikazio legala ezartzen da.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi etxeko langileen sektore handi bat lege horretatik kanpo geratzen dela, kontuan izanik paperik gabeko etorkinak direla. Espainiako Estatuan 585.000 etxeko langile inguru daude, horietatik % 95 emakumeak, % 56 atzerritarrak (naziokotasun atzerritarra) eta internen kasuan % 92a dira atzerritarrak.⁸ Gutxi gorabehera herenak ez du kontraturik, beltzean kobratzen dute eta ez daude Gizarte Segurantzian alta emanda. Beraz, Espainiako Estatuako Atzerritartasun legeak etorkinak bizi baldintza txarretara kondenatzen ditu, lortu zitzaketan eskubide guztiak ukatuz.

7 <https://www.newtral.es/datos-gestacion-subrogada/20230329/>

8 <https://www.oxfamintermon.org/es/publicacion/esenciales-sin-derechos-empleadas-hogar>

Laburbilduz, lege hau jatorriz hemengoak diren edo paperak dituzten eta modu egonkorreran lan egiten duten langileentzat soilik da erabilgarria. Onuragarria enplegatzaileentzako da, haiek direlako hobariak jaso eta modu legalean kaleratzeko erraztasunak dituztenak.

Eztabaidagai izan diren proposamenak

Orain arte aipaturiko lege eta politikez gain, badaude onartuak izan ez badira ere mahai gainean jarri diren beste zenbait proposamen eztabaida sortu dutenak. Horien artean azpimarragarrienak dira PSOEek bere egin duen “proxenetismoaren debekurako lege proposamena” eta zaintza ereduaren inguruko eztabaida, tartean, erresidentziek bete beharreko baldintzak.

TRATA ETA PROSTITUZIOA

Egun proxenetismoa debekatua dago Espainiako Estatuko Zigor Kodean. Aldiz, gaueko lokaletako jarduna onartua dago. Hala ere, estatu mailan zein Europar Batasunean auziari dagozkion aldaketa legegileak egiteko asmoa aurkeztu da azken hilabeteetan. Espainiako Estatuan hasieran “Soilik bai da bai” legearen baitan Podemosek “tercería locativa⁹” izeneko txertatu nahi bazuen ere, azkenean, PSOEek bere gain hartu zuen legislazio berriaren proposamena, proxenetismoaren debekurako lege proposamena mahai gaineratuz. Lege proposamenak lau hanka ditu:

- Proxenetak zigortzea. Bertan, esplotazioaren figura desagerraraztea proposatzen da, hori ez izateko proxenetak zigortzeko baldintzetako bat, nolabait abolizionismoarekin lerrotuz (prostituzioa bera sexu-esplotazioarekin parekatuz).
- Irabazi asmoz prostituzioa gertatzen den lokaletako jabeak zigortzea.
- Bezeroak zigortzea, izaera sexuarekin erlazaturik praktika adosten duen oro zigortzea.
- Inongo kasutan prostitutak ez izatea zigortzea.

⁹ Prostituzioa gertatzen den lokaletako jabeak zigortzea, hain zuzen. Eztabaida handia sortu zuen ez zelako argi adierazten zerk definitzen zuen lokal baten jabea zer zen eta hainbat talde sozialek arriskutsua ikusi zuten, euren pisuetan prostituzioa praktikatzeko duten prostituten kontra joan zitekeelakoan.

Proposamen hau, gainera, jada martxan dagoen “Plan Camino” (2022-2026) delakoarekin osatuko litzateke. Plan horrek, estatuan kalkulatzen diren 90.000 prostituetatik, 30.000 hartuko litzuzke barne. Horretarako 204 milioiko aurrekontu plana dago, bost lerro hauetarako: proiektu, entitate, zein sentsibilizazio kanpainetarako dirulaguntzak; 24 orduko krisi zentroen sorrera; akonpainamendu profesionala eta berreskuratze psikosoziala; etxebizitzara sarbidea, eta enplegu politika aktiboak zein kontrataziorako hobariak.

Planak itxura polita izan dezakeen arren, mugak nahiko agerian geratzen dira. Hasteko, argia da prostituzioaren abolizioaz hitz egiten bada ere, aldaketa juridiko batek ideia hori prostituzioaren debeku eta kriminalizaziora mugatzen duela. Baina oinarrizko ideia horretatik haratago, erraza da ulertzea prostituzioan dabiltzan emakumeen baldintzak asko okertuko direla, legez kanpo egoteak proxenetekiko botere-harremana areagotuko baitu. Horrela, prostituziora behartuak diren emakumeek ere ezkutuago egin beharko dute lan, inolako babesik gabe eta egoera oso zaugarrietan. Gainera, aipagarria da prostitutak babesteko intentziora adierazten duela proposamenak; baina, kontrara, prostitutak egunerokoan kaltetzen dituzten neurriak bere horretan utzi dituzte, besteak beste, “Mozal Legea”. Nahiz eta alderdi progresistek lege horren aurka hitz egin, behin gobernura iritsita ez dute legea bertan behera utzi. Bestetik, eta hasieran aipaturiko ideari jarraikiz, “Plan Camino” bezalako proposamen baten helburua (prostitutak berriz gizarteratu eta laneratzea) ezerezean geratzen da. Bergizarteratzeak bestelako egoera batean koka baditzake ere, ezingo du miseriako baldintzetatik ihes egin, orokorrean emakume horiek prekarioenak diren lan esparruetan txertatuko baitira, hala nola zaintzari loturiko zerbitzuetan edo hostalaritzan. Gainera, ikusi beharko da martxan jarriko dituzten bitarteko horiek izango duten irisgarritasuna eta kalitatea, esperientzia dauka-gu-eta horrelako kasuetan egoten diren itxaron zerrendekin eta iristen ez diren dirulaguntzekin.

ZAINZA PUBLIKO ETA KOMUNITARIOA

Zaintzen auzia emakumeon zapalkuntzaren baitan zentrala izan den gaia da. Orain eztabaida berriz ere indarra hartzen ari da. Batetik, Podemos-PSOEn Gobernuak behin baino gehiagotan hitz egin duelako estatu mailako zaintza sistemaz. Bestetik, biztanleriaren zahartzaroak auzitan jarri du gaia, zaintzarako eskubidea bermatzeko bideak topatu nahian –kontuan izanda historikoki emakumeen gain jausi den jardun hau aurrera eramateko zailtasunak nabariak direla emakumea lan munduan modu masiboan txertatu zen unetik-. Hala, “zilarrezko ekonomia” gisa ezaguna egin da zahartzaroko zaintza zerbitzuen baitan sortu den merkatua. Horren helburuak plano publikoan kalitatezko zaintza bermatzea eta guztiok zainduak izateko eskubidea bermatzea dela esaten badute ere, argi ikus genezake etekin ekonomikoak ahalbidetuko dituzten merkatu berriak lortzeko jokaldi bat dela.

Podemosen proposamenari dagokionez, “Erantzukidetasun Planean” (Plan Corresponsal) ikus dezakeguna zaintzaren profesionalizaziorako tendentzia da. Hau da, aurretik martxan zegoen Dependentsia Legeak zuen zaintzaren familiarizaziorako joera aldatu nahi dute, zaintza zerbitzu horiek familiaren kargatik aterata. Aldiz, zerbitzu horiek sol-datapeko lan gisa zabaldu nahi dituzte eta horretarako “zaintza poltsa” osatu nahi dute. Lan eskaintza horren hartzaileak, argi adierazten du planak, gazteak eta 45 urtetik go-

rako emakumeak izango dira, etxeko lanetan esperientzia dutenak.¹⁰ Konkrezio horrek argi erakusten du sektoreko lan baldintzak prekarioak izaten jarraituko dutela eta ez dagoela zaintza emakumeon arduratik askatzeko borondaterik. Aspaldi geratu da agerian zaintza eta etxeko lanak soldatapeko lan bilakatzea ez dela inondik inora lan banaketa sexualarekin amaitzeko ezta zainduak izateko eskubidea bermatzeko bitarteko ere. Kontrara, lan banaketa sexuala indartu eta kapitalari etekinak lortzeko sektore berriak konkistatzeko aukera eskaintzen dio. Horretaz gain, zaintzaren desinstituzionalizazioa dute oinarri; zainduak izan behar duten pertsonak beren etxeetan geratzea izango da lehentasun. Aparientzian egokia dirudien proposamenak hainbat oztupo dakartza berekin, batez ere sektoreko langileen baldintzei dagokienez: hasteko, lanaren isolamendu mailak borroka politikorako ezintasuna dakar; gainera, askotan oso ordu gutxikoak diren zerbitzu askorekin osatzen dira langile horien jardunak eta horrek arazoak ekarri ditu aspalditik ez zaizkielako desplazamenduak ordaintzen, esaterako. Horretaz gain, etxeetan lanerako izaten diren baldintzek asko zailtzen dute zerbitzuaren kalitatea, eta langileen osasunerako berme gutxi izaten da bertan.

10 <https://www.newtral.es/plan-corresponsables-cuidados-trabajadoras-domesticas-ministerio-igualdad/20210312/>

Ondorio politikoak

Azaldutako lege bakoitzarekin izugarrizko espektatibak sortu badituzte ere, horiek egunerokoan izan behar zuten aldaketa positiboa gutxi igarri dugu. Lege horiek errealitate sozialaren eraldaketarako baino, alderdi horiek gobernuan duten posizioa mantentzeko jokia izan dira. Legeek sorturiko eztabaida guztietan helburua ez da izan arazoekin amaitzeko aukera onena bilatzea, baizik eta politika instituzionala eta alderdi profesionalen interes elektoralak.

Horrela, eskuineko alderdien interesa, lege horien eztabaidaren bidez, gobernuko alderdiak ahultzea izan da eta, era berean, iritzi atzerakoi, erreakzionario eta matxistak indartzea. Gobernuko alderdi aurrerakoiek politika feminista horiek erabili dituzte paraleloki hartzen ari ziren beste zenbait neurri autoritario ezkutatu eta, esan bezala, instituzioetan beraien posizioa mantentzeko. Ezin ahaztu genezake Espainiako Estatuko historiako gobernurik aurrerakoiena izan dela langile klasearen aurka zuzenean egiten duten legeak onartu dituen beste bat. Horien artean, Zigor Kodearen erreforma, indar polizial eta armatuen aurrekontuak handitzea eta horien defentsa mediatikoa, okupazioaren ilegalizaziorako legeak, etab. Aipagarria da, esaterako, hainbestetan hitzeman zuten Mozal Legearen indargabetzea albo batera utzi dutela eta, kontrara, kartzela zigorrak indartzen dituzten legeak onartu dituztela.

Aipaturiko lege horiek pobrezia eta biolentziara kondenatzen gaituzte gizarteko sektore zaugarrienak, baita emakume langileok ere. Emakumeon baldintza sozialak oso txarrak izaten jarraitzen dute; esaterako, lan partzialeko kontratuen % 75 emakumeok egiten dugu (EPA, 2021), 2022an langabezia tasa % 14,8koa izan da eta pobrezia arriskua % 21,3n kokatu da (INE). Kalitatezko bizi baldintzak izateko ditugun aukera ezaren aurrean, miseria, errepresioa eta kartzela zigorrak dira errealki azken urteetako politika aurrerakoiek utzitakoak.

Orain arte aipaturikoak nahiko argi uzten du politika instituzionalak zerrendatutako arazo horiei guztiei aterabidea emateko duen ezintasuna. Gobernu politika eta sistema legalak ez dute inondik inora helburutzat esplotazio eta zapalkuntzekin amaitzea, baizik eta klase harremanak dakartzan dominazio forma oro kudeatzea. Kudeaketa hori, noski, ez dago gaitasun ekonomikoetatik salbu eta beraz, politika horien finantzaketa da, finean, legeen norabidea zehaztuko duena. Hala, ikusi dugu politika horiek ez dutela errealki proletalgoaren interesik defendatzen, baizik eta irudiaren industria, zerbitzu pribatuak, kartzelaren-industria edota enplegatzaileak babesten dituztela.

Eskuin politikak ekar dezakeen atzerakada politikoa eta soziala agerikoa da, baina ho-

rrek ez du ukatzen ezker politikaren fartsa seinalatzearen beharrezkotasuna. Kontrara, sozialdemokraziak langile klasearen gehiengoaren arazoei aterabidea emateko duen ezintasunak ere indartzen du eskuin hegala. Hala, PSOE-Podemos Gobernuan egon diren bitartean, nabaria izan da eskuin parlamentarioaren eta ideia faxisten gorakada eta, konkretuki, zabaldu diren jarrera matxistek datozen urteetarako erronka handiak mahaigaineratzen dizkigute.

Estatuak eskaintzen digun limosnaren zain egotea ez da aukera bat. Kontrara, proposamen erreformista seinalatzea lehentasunezko lana da, hori ez egiteak kalean existitu daitekeen borroka grina gero eta gehiago apaltzea ekar baitezake. Horrek, modu berean, zapalkuntza ororekin amaitzeko norabidea eztabaidatzea dakar, irtenbidea ez baita etorriko berau betikotzen dutenen aldetik. Emakume langileon eta proletalgo osoaren babesa bermatu ahal izateko gaitasunak lortu behar ditugu eta horretarako, instituzioekiko independentea izango den antolakuntza politiko propioa da aukera bakarra.

Estatua agente neutral gisa azaltzen duten proposamen politikoek, ez dute arazoa horren izaera klasistan kokatzen, baizik eta auzi tekniko batean, borondate aldaketa batekin konponduko litzatekeena. Hau da, berdintasunaren aldeko politikak martxan jarriko lituzkeen alderdi instituzionalen baten aldeko indarrak batuz eta horiek kaleko presio sozialarekin mantenduz. Horrela, alderdi horiek politika publikoak indartzea proposamenaren zentroan jartzen dute. Aldiz, jakina da politika publikoak finantzaketa iturriak behar dituztela, baina hainbestetan aipatzen den ikuspegi aurrerakoa izango lukeen erreforma fiskala ezinezkoa da egungo egoera ekonomikoan; izan ere, krisi kapitalistan murgilduta, kapitalak bere posizioa mantentzeko beharrezkoa du inbertsio sozialaren murrizketa. Estatuaren eta haren instituzioen baitako aldaketetan oinarrituriko proposamen politikoek ez diote aterabiderik ematen emakume langileok bizi dugun zapalkuntzari, konkretuki, ezta proletalgoak bizi duen dominazio egoerari ere.

Zapalkuntza ororekin amaitzeko, beharrezkoa da zapalkuntza betikotzen duen sistemarekin amaitzea eta oinarri etiko berri batzuen baitako gizarte berri bat eraikitzea. Horrela, helburua, guztiok kalitatezko bizi-baldintza berberak izango ditugun gizartea eraikitzea da: batetik, kalitatezkoak izango diren bitarteko eta zerbitzu unibertsalak bermatuko dituen eta, bestetik, emakumeok, inolako baldintza sozial eta kultural zapaltzailerik gabe, bigarren mailako kolektibo izateari utzi eta gure garapen pertsonal eta soziala modu egoki eta osatuan garatzeko aukera izango duguna. Horregatik, guztion ongizatea bermatzeko, sozialismoaren eraikuntza dugu xede eta, bide horretan, behar-beharrezkoa da egun ditugun eskubideak defendatzeko bitartekoak garatu eta gure bizitzan gaineko kontrol gradua handitzeko baliagarriak izango diren borroka martxan jartzea.

Bibliografia

- 1/2023 Lege Organikoa, otsailaren 28koa, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa aldatzen duena. 2023ko martxoaren 1a. Zenb. 51. <https://www.boe.es/boe/dias/2023/03/01/pdfs/BOE-A-2023-5364.pdf>
- 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa. 2022ko irailaren 7koa. «BOE», 215. zk. <https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-14630-consolidado.pdf>
- 16/2022 Errege Lege Dekretua, irailaren 6koa, etxeko langileen lan-baldintzak eta Gizarte Segurantzari buruzkoa. 2022ko irailaren 8a. Zenb. 216. <https://www.boe.es/boe/dias/2022/09/08/pdfs/BOE-A-2022-14680.pdf>
- 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko. 2023ko martxoaren 1ekoa. «BOE», 51. zk. <https://www.boe.es/buscar/pdf/2023/BOE-A-2023-5366-consolidado.pdf>
- CincoDías, El País. (31 de marzo de 2022). El desempleo se ceba con el colectivo transexual en España. https://cincodias.elpais.com/cincodias/2022/03/30/fortunas/1648655666_055768.html
- Ebazpena, 2023ko martxoaren 16koa, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarena, 2023an Plan Erantzukidea garatzeko erabiliko den kreditua autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei banatzeko irizpideak ezartzen dituen Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren 2023ko martxoaren 3ko Erabakia eta horren ondoriozko banaketa argitaratzen dituena. 2023ko martxoaren 20a. Zenb. 67. https://www.igualdad.gob.es/wp-content/uploads/Resolucion_Plan20Coresponsables_2023.pdf
- Eusko Jaurlaritza. (2021). Haurdunaldiaren Borondatezko Etendura euskal autonomia erkidegoan. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/interrupcion_embarazo/es_def/adjuntos/informe-ive-2021.pdf
- FELGTB. (2019). Las personas trans y su relación con el sistema sanitario. <https://fel->

gtbi.org/wp-content/uploads/2020/03/PersonaTransSistemaSanitario_informe2019pdf

- Ministerio de Sanidad. Datos estadísticos. <https://www.sanidad.gob.es/areas/promocionPrevencion/embarazo/datosEstadisticos.htm>
- Newtral. (29 marzo 2023). Los datos de la gestación subrogada: 165 niños se han inscrito en los consulados españoles por esta técnica en 2022. <https://www.newtral.es/datos-gestacion-subrogada/20230329/>
- OXFAM. (30.03.2021). Esenciales y sin derechos. <https://cdn2.hubspot.net/hubfs/426027/Oxfam-Website/oi-informes/esenciales-sin-derechos-informe-completo.pdf>
- SER. (17/05/2022). Navarra garantiza el aborto gratuito para las mujeres, pero deriva 6 de cada 10 casos a la clínica privada. <https://cadenaser.com/navarra/2022/05/17/navarra-garantiza-el-aborto-gratuito-para-las-mujeres-pero-deriva-6-de-cada-10-casos-a-la-clinica-privada-radio-pamplona/>
- Swissinfo.ch. (05 junio 2023). Las condenas por violación se duplican en Suecia en cinco años, tras la reforma penal. https://www.swissinfo.ch/spa/suecia-violaci%C3%B3n_las-condenas-por-violaci%C3%B3n-se-duplican-en-suecia-en-cinco-a%C3%B1os--tras-la-reforma-penal/48566764

